

# AINTZINAROKO EKIALDE HURBILA o.a.a. I. MILURTEKOAN

## 1. EKIALDEKO INPERIO HANDIAK

### 1.1 BABILONIA KALDEARRA

Babiloniako azken garaia da eta kaldearrak nomada semitak ziren. Asiriarren kontrolpean egon ondoren, Assurbanipal hil eta Nabopolasar kaldearrak XI. Dinastia Babiloniarra fundatu zuen.

Horrela, medoen erreinuarekin mugak adostu zituzten eta Mesopotamia osoaren kontrola lortu zuten, pixkanaka hiri desberdinak konkistatu. Funtsean, inguruko botereak batu ziren Asiriarrak garaitzeko eta Ninive suntsitzeko.

#### NABUCODONOSOR II (K.a. 604-562)

Dinastiako erregerik garrantzitsuena izan zen, eta Nabopolasarrek gerturatu zuen tronura, egonkortasuna mantentzeko asmoz. Hainbat erresistentziarekin amaitu zuen errege honek, hala nola, Siria eta Palestinakoekin. Salomonen tenplua suntsitu zuen eta judutar guztiak Mesopotamiara eramane zituen preso, soldaduak deportatzearekin batera.

Hedapena nagusitu zen bere buruzagitzan; mediterraneoko hainbat lur hartu ondoren, filisteoak erasotu zituzten, garaipenarekin. Mendebalderantz jo zuenean, ordea, Egiptorekin aurkitu zen eta ez zuen lehen saiakeran hartzea lortu.

- Barne politika

Babilonia zen inperio handi honen erdigunea eta merkataritza bide oparoak zituzten. Babilonia eta beste hainbat hiri berreraiki eta apaintzeko, esklabu judutarrak erabili zituzten. Babilonia hiri handiena bilakatu zen, izan ere, Erroma, Esparta bezalako hiriak oraindik txikiegiak ziren.

Ur, Uruk, Larsa, Kish eta beste hainbat izan ziren apaindu zituzten hiriak. Gainera, Babilonian bertan hainbat lan-publiko egin zituzten, ikaragarritzko hiria osatuz; 20 km karratuko laukizuzena zen eta 8 ate zituen, harresi bikoitza pasatu ahal izateko. Bertara enbaxadak, prozesioak... iristen ziren.

Babilonia erdialdean bi gunek nagusitu ziren;

ETEMENANKI (Babelgo dorrea)→figura historiko ospetsuena. Bere hitzek zeruko atea esan nahi dute, izan ere, zazpi pisu zituen eskailera luze batekin.

ESAGILA (Marduken tenplua)→Marduk zen jainko nagusia eta bertan jainko honen urrezko irudia jasotzen zen.

#### NABONIDO (K.a. 555-539)

Estatu kolpe baten bitartez lortu zuen boterean jartzea eta indarrez lortu zuen hegemonia, izan ere, armadak babestu egiten zuen baina herria aurka agertu zen, baita Marduken apaizgoa ere.

Egoera horretan, apaizgoak laguntza eskatu zien Mediarrei eta Ziro handia laguntzeko prest agertu zen, Babilonian esku zabalez hartuz. Horrela, Nabonidok ihes egin behar izan zuen lurraldetik.

Gauzak horrela, ekialdeko inperio handia desagertu egin zen eta pertsiarrek eskuratu zuten boterea. Babiloniak ondorengo inperioen hiriburu izaten jarraitu zuen, baina ez zen bakarra izaten.

## 2. LEVANTEKO KOSTALDEA

### 2.1 FENIZIARRAK

K.a. 800. urte inguruan, Asiriarr Inperioa zen botere inperial nagusia Ekialde Hurbilean, baita Levanteko Kostaldean ere (gaur egungo Palestina...). Hala ere, lur horien goialdean (Libanoko kostak) aurkitzen ziren hiri-estatu feniziar, hala nola, Biblos, Sidon, Tiro... bertako biztanleak semitak ziren eta ez zuten izaera konkistatzailea garatu. Gainera, Greziarekin harreman handia sortu zuten, hainbat aliantza eginez.

Inguruko inperioak desagertzen joan ziren heinean, hiri-estatu feniziar horiek populatuta jarraitu zuten, benetako askatasuna eskuratuz eta era independentean, hiri-estatuetan antolatuz. Kultura komuna mantendu zuten.

#### ITURRIAK

- Arkeologikoak

Iturri horiek ez dira oso handiak, izan ere, tradizionalki oso populatuta egon diren lurrak izan dira. Gainera, gaur egun ezegonkortasun politiko bat duten herrialdeak izanik, oso zaila da indusketa sakonak egitea. Hala ere, egon dira saiakerak kanpotik ere proiektuak abiarazteko, hala nola, Tiro hiriaren indusketa, Espainia eta Libanoren artean aurrera eramana.

- Idatziak

Ez dira asko kontserbatu, eta suposatzen da papiro zein pergaminoetan idazten zutela, nahiz eta horiek ez diren aurkitu. Hala ere, harri gaineko inskripzioak aurkitu dira, gehienak erlijiosoak izanik. Horietan, feniziar idazkera garatu zela ikus daiteke.

Kultura honen informazio zati handiena autore klasikoetatik hartu izan da, hau da, Greziako eta Erromako idazleengandik. Hala ere, horiek iturri interesatuak eta berantiarrak izaten ziren.

Feniziarrei "kananeo" ere deitzen zaie.

#### IDAZKERA

Feniziarra idazkera alfabetikoa zen, eta sinbolo bakoitzak silaba/soinu bat esan nahi zuen. Gainera, hizkuntza semitikoa zen, ez baitziren bokalak idazten. Bi ezaugarri horiek Egiptoren eraginez garatu ziren.

Feniziar alfabetoa beste hainbat alfabetoren aitzindari izan zen, hala nola, greziarra, etruskoa, iberikoa...

#### MERKATARITZA

Feniziar gehienak nekazaritza edota abeltzaina zuten ogibide, baina merkataritzak garrantzi berezia bereganatu zuen, mediterraneoarekin zein Mesopotamiarekin lotura izateak luxuzko merkataritza bat ahalbidetzen baitzien.

Horrela, lehengaiak eskuratzean artisauek lantzen zituzten, eta artisautzaren gorakada nabaria izan zen urteetan zehar. Bereziki oihalengatik egin zuten fama, purpuraren erabilerak desberdintzen zituela.

#### NABIGAZIOA

Merkataritzak sortutako beharrek bultzatuta, trebetasun handia garatu zuten itsasoan, eta hirietan portu naturalak. Horrekin batera ontzigintzan ere garapena eman zuten, eta normalean udan bidaiatzen zuten, aldeko haizeak aprobetxatzeko.

Bi nabigazio mota gailendu ziren feniziarren artean; 'kabotaje' nabigazioa, kostaldea ikusiz nabigatzeari deritzona, eta nabigazio astronomikoa, izarrak interpretatuz garatzen zena.

### **MEDITERRANEOKO HEDAPENA**

Iturri klasikoek diote feniziarrek 1100. urtetik nabigatzen dutela, baina aztarna arkeologikoen IX. eta XVIII. mendeetan kokatzen dute hasiera. Hala ere, esan daiteke aurrekolonizazio garai bat existitu zela, merkataritza guneak sortzeko erabili zena.

Feniziarrek merkataritza koloniak eratu zituzten mediterraneoan zehar, izan ere, beraien merkataritza sustatzen jarraitzeko lehengaiak eskuratzea beharrezko zuten (luxuzko materiala, ardoa, olio, metala... trukeak egin).

- Iberiar penintsulako asentamendua

Asentamendu honen arrazoi nagusia honakoa zen; Iberiar penintsulako metal preziatuak nahi zituzten, urre edo zilarra esaterako.

Hegoaldeko kostaldetik sartu ziren, Kadiz sortuz, eta bertan, "Melkort"en tenplua eraiki zuten, jainkoari eskainia. Leku hau elkartruke gunea eta kultura nahasteko lekua bilakatu zen, baita horiek jainkopean egiteko irtenbidea ere.

Orokorrean penintsula hegoaldean nekazaritza koloniak ezarri zituzten, gerora eragin handia izan zutenak. Horrekin lotuta, feniziarrengandik hartutako influentzia aztarnei orientalizante deritze.

### **ASIRIAREN GORALDIA**

Garai batean Asiriaren Inperioaren menpe egon arren, beti mantendu izan zuten autonomia, merkataritzaren interesaren ondorio. Hala ere, Egiptok interesa zuen lurralde horietan.

Egoera horretan, IX. mendean gerra egin zuten bi inperio horiek, lurraren interesengatik. Feniziarren artean ere bi bando nagusitu ziren, merkataritzako oligarkiak Egiptoren alde eginez eta aristokrazia tradizionalak (lurjabeak), berriz, Asiriaren alde.

Funtsean, Asiria atera zen garaile eta lurren kontrola eskuratu zuen, autonomia eskainiz feniziarrei. Alabaina, horren ordeztatuak eskatzen zizkien, hala nola, luxuzko lehengaiak.

Denbora aurrera joan ahala, geroz eta gehiago eskatzen zieten feniziarrei, eta kolonia gehiago egitearen arrazoi nagusia izan zen horiei aurre egiteko gaitasun materialak eskuratzea.

### **KARTAGO – QART-HADASHT, HIRI BERRIA**

VIII. mende inguruan, Kartago sortu zuten, feniziarren kolonia finko eta garrantzitsuena bihurtu zena, eta bertakoek identitate propio bat garatzen hasi ziren, punikoak zeritzela (ondoren Erromaren kontra gerrak).

## **2.2 KANNAN-GO LURRAK (IX-VI. mendeak)**

Gaur egungo Palestinan eta Israelen kokatuta, erreinu semitiko ugari aurkitzen ziren bertan, bakoitza bere jainko eta sinesmenekin, eta hainbat liskar eman ziren.

Lurralde horietan bi erreinu nagusitu ziren, Israel eta Juda. Horietako jainko nagusia Yahve zen, eta monolatrian oinarritzen zituzten beraiek sinesmenak; hainbat jainko existitzen direla onartzen zuten, baina beraien jainkoa gurtzeko bakarra zela defendatzen zuten.

Alabaina, VII. mende inguruan Asiriarrek konkistatu zituzten Israelgo eta Judako lur horiek. Ez zuen asko iraun, izan ere, VI. mendean Babiloniaren esku gelditu ziren. Horrela, Israel zein Judako eliteak Babiloniara desplazatu ziren.

Egoera horretan, monoteismoa garatuz joan zen, hau da, Yavhe jainko bakartzat defendatzearen ideia. Funtsean, judaismoaren sorrera ematen hasi zen.

### **PERTSIARREN KONTROLA**

Askatasun erlijiosoa gailentzen zen garai bat bazen ere, elite israeldarren itzulerak judaismoa gorpuztu zuen lurralde horietan. Horrela, lehen liburuak idazten hasi ziren (Biblia...).